




MARTIN URBIAKO
ATERPEAN.

Kaixo, MARTIN! Hello, ZABALETA!

ANDONI ARABAOLAZA Marrazkiak: ANDONI UNANUE

Urteroko bisita "ofizialean" harrapatu dugu Martin Zabaleta. EEBBetatik ekarritako bezeroak agurtu, eta solasaldia prestatzen hasi gara. Ez da ohiko berriketaldia izango. Oraingotan, gaiek baldintza jakin batzuk izango dituzte; kasu honetan, aldez aurretik diseinatutako ibilbideak elkarrizketaren nondik norakoak zuzenduko ditu. Mendizaleen ohiturari jarraiki goiz abiatu gara.

SANTA BARBARA

FILOSOFIAREN GUNE BEREZIA

Eguna zeharo aproposa da: eguzkia goian, zerua urdin-urdina eta 14 graduko hotz-beroa.

Gosariaren liseriketarekin batera Santa Barbarako ermitara heldu gara. Bertako harresian eseri, eta...

Alderdi hau oso egokia da filosofatzeko, eta 8.000 metrotik gorako bibak batean zer moduz konpontzen zarete gai transzendentalei buruz jarduteko?

Bibak batean ez da batere erraza. Egoera zail horretan burura etortzen zaizun pentsamendu bakarra zera da: bizirik irten behar dut, eta kito. Biziraupena da argi mantentzen zaituena. Aldiz, kanpamentu nagusietan egoera bestelakoa da; han bai, baduzu umorea filosofatzeko. Hemen ere, Hernanin adibidez, zaila izaten da. Normalean "a toda mecha" ibiltzen zara; eta egia esan, aukera gutxi dago.

Nahiz eta asko hausnartu, bizitzaren norabidea nahikoa aldakorra da...

Kontraesan ugari dago. Ideia argiak eta zehatzak dituzu, baina, sarri, gaur egungo gizarte-sistemak baldintzatzen zaitu. Desfasatuta egotea ere ez da oso egokia. Hitz batean esanda, aszeta izatea zaila da.

Nola baloratuko zenuke orain arte eginiko bizitzaren ibilbidea. Nolakoa izan da?

Zeharo desberdina etapa batetik bestera, baina, hori bai, oso aberatsa. Baserrian bizi izan naiz, gero kalekume bihurtu... eta bizimodu hori ez zela niretzat egina konturatu nintzenean jauzi egin eta mendiak duen erakargarritasunak harrapatu ninduen. Horri guztiari esker jende eta kultura ugari ezagutu ditut. Erabateko aldaketa izan zen, eta hori ulertzea ez da erraza garai haietan oso lotsatia eta ixila bainintzen.

Zortea izan dut: lan gutxirekin ondo bizitzea lortu baitut.


Mendian asko ibili izanak indarra ematen dio kaleko bizimoduari?

Bai horixe. Une zailetan izandako eskarmentuak laguntzen du; ze mendian ere oso momentu larriak bizitzen baitituzu. Mundu bakarra ezagutzen baduzu... eskas geratzen zara. Zerbait egin behar da, bestela bizitza nahikoa pobrea da. Nik, adibidez, militanteen aurrean txapela kentzen dut.

Azken finean, bi bizimolderen artean aurkitzen zara, ez da?

Bai, kalekoa eta mendikoa. Biak elkarrekin doaz. Estatu Batuetara joan eta, agian, hor bereizketa bat eman zen. Nahasteko modukoa da... baina oso gustura nago nire buruarekin.





BESABI

INDARRAK BERRITZEN

Nahiz eta Martinen gustukoa ez izan, azken zigarrotxoa erre, eta gai korapilatsuak alde batera utzita, gure bigarren helburuaren bidea hartu dugu: Besabi. Hamaiketakoaren laguntzarekin batera, beste "mundu" batean murgilduko gara; ez da berdea, ezta gorria ere. Agian, arrosa izan daiteke.

Protagonista izatea gustura hartzen al da?

Ez dut inoiz horrela pentsatu. Oso neketsua da. 80koa izugarria izan zen; kalera irten... eta ufff, demasa. Egia esan behar baldin badizut, ez da nire mundua, ez naiz arrosa munduko jendea bezalakoa. Nik Everesteko gailurra zapaltzeagatik ez nuen ezer lortu. Jende ugari hurbiltzen zaizu, ezagunak eta ez; bostekoa eman eta bale. Pertsona jatorrak ezagutu ditut, eta horrek pozten nau.

Hernaniar batek baino gehiagok (eta horiek kontakatiluak dira) oraindik esango du: ze demontre egiten du Martinek EEBBetan!

Ez nuen inoiz pentsatu hara joango nintzenik, ingelesa ikasiko nuenik... baina patu kontuak ei dira. 80an Everesteko bidean emakume bat ezagutu nuen, handik bi urtera ezkondu... eta

dakizuen bezala bereiztu ere. Euskal Herrira itzuli nintzen, eta, bitartean, amerikanoak ekartzen segituen. 93an beste emakume bat ezagutu eta berriro ezkondu nintzen.

Orain, berriz, bidaiak utzi eta EEBBetan jarriko naiz bizitzen. Mendian segiko dut, egundoko gogoia baitut eskalatzeke. Dagoeneko 8.000ko mendiek ez naute erakartzen, beno, erakarri bai, baina oso garestiak dira. Nahiago dut beste mendi batzuk eskalatzea, txikiagoak baina teknikoagoak.

Amerikanoekin izandako eskarmentua positiboa izan al da?

Hein handi batean bai. Besteak beste, Euskal Herriaren giroa, historia, ohiturak... ezagutu zituztelako. Zergatik aukeratzen zuten gure lurraldea? Batzuek Euskal Herria ezagutzen zutelako, beste batzuek...auskalo! Harri eta zur eginik gelditzen ziren. Primitiboak ginela uste zuten, baina piska bat ezagutu orduko ikuspegia erabat aldatzen zuten.

Eta zer moduz konpontzen zara EEBBetan?

Gustura nago. Politika piska bat segitzen dut, eta ekimenak jatorrak badira gehiago inplikatzeko naiz. Beste mundu bat da, pozik bizi naiz integratu naizelako. Beste kultura batzuk ezagutu ditut eta hori guztia aberasgarritzat jo dezaket.

AKOLA

MENDIZALETASUNAREN ORDUA

Bapo jan ondoren, gure inguruetan txertatuta dauden kolore, soinu eta usainen ordua da. Emeki-emeki bada ere, bidea eginez segitzen dugu... begira, Akolara heldu gara!

Eta gaur egungo mendizaletasunari buruz zer iritzi duzu?

Konpetizio hutsa da. 8.000koen lasterketa ez dut atsegin. Gainera mendiaren aurka doa; nahiago dut lasai ibili eta lagunekin ondo igaro. Hitz batean

esanda, erromantizismoa galdu egin da. Nik Ortiz, Berrio, Bonati... miresten nituen. Mendiari errespetu pitin bat galdu zaio. Santa Barbaran zabaldutako bide berriak, gauez sartutako iltzeak, Pirinioetan egindako erokeriak... horiek guztiak txalotzen ditut. Everestekoa beste gauza bat izan zen, zehazki ez dakit zer izan zen. Egun mendiko aldizkari bat zabaltzen dudanean ez dakit zer irakurtzen ari naizen.

Eta esku artean proiekturen bat...

Trangoko Dorreetara oso gustura joango nintzateke. Aurretik Alaska bisitatu behar dut, McKinley agian.





EZKIAGA PASEALEKUA

AZKEN GOGOETEN LEKUA

Akolatik behera goaz. Mendian hainbat ordu egin ostean herrirako buelta falta zaigu. Azken kafetxoa, beraz, Ezkiaga pasealekuan hartu behar.

Hernaniko egoeraren diagnosia egingo al zenuke?

Zaila da, ze sei hilabete EEBBetan pasatzen ditut. Azterketa serio eta sakona egiteko beharrezkoa da hemen bertan bizitzea. Dena aldatzen ari da. Etxebizitza ugari eraiki da, jende asko kanpotik etorri da... galduta samar ibiltzen naiz. Hala eta guztiz, betiko lagunak ikusteak poztzen nau. Makina bat herritar jator dago. Ea aldaketa politiko berriekin jendea elkartzen den.

Eta, orohar, Euskal Herria?

Gure helburuak lortzeko bide luzea dugu. Lan handia egiten jarraitu behar da, baina, era berean, umorea eta alaitasuna behar-beharrezkoak dira. Bata besteari animoak eman, elkartu... eta jakina, botereak, estatu espainiarrak alegia, azken hauteskundeen emaitzei so egin behar die, eta, bide batez, euskal herritarrek aldarrikatzen duten guztia errespetatu. Bestela, jai dugu. Presoak eta errefuxiatuak herrira itzuli behar dira, euskal kultura eta euskara bultzatu... lan handia dago egiteke. Eta ez ahaztu, alaitasuna ezinbestekoa dela gure Euskal Herria benetan eraikitzeko. Nik espero dut gure buruaren jabe izango garela, eta ez dut uste urte asko pasako denik. Ezin dute berdin segi... Gurea da garaipena. ♦